

erreportajea



Ongarai eskolak 50 urte

Urriko azken aurreko asteburua ekitaldiz, ospakizunez eta gogorapenez kargatuta datorkio Ongarai eskolari, 1996-97 ikasturtean Santiago Apóstol eta Teodoro Zuazua ikastetxeen fusiotik sortutako horri. Urteen poderioz, herri mailan erreferente bihurtuta, 50 urteurrena gogotsu prestatzen dihardute eta ilusioz begiratzen diote ere hemendik aurrerakoari.

1 972ko urriaren 23ko data du neskatoen Santiago Apóstol eskolaren fundazio aktak, Magdalena González zuzendari zela. Ikasleei erai-kina zaintzera animatu ostean, geletan jarriko ziren gurutzeak bedeinkatu eta *Aleluya* abestu zuten bertaratuko guztiek. 50 urte beranduago bestelakoak izango dira ospakizunak. Berauen gaineko eta aurrerantzeko asmoen berri jakiteko gaur eguneko zuzendaritza taldearengana jo dugu. Harrotasun eta konbentzimendu osoz diote: “Itzelezko funtzioa bete du ikastetxeak hizkuntza eta gizarte mailan, zerbitzu publiko bat eskaintzen dugu,

unibertsala eta doakoa. Ez gara soilik hezkuntza munduan geratzen, baizik eta herrira zabaltzen saiatzen gara”. Guzti horrek garrantzi handia duela uste dute, azpimarratzekoa.


Eskola batek betetzen duen funtzioa ezinbestekoa dela sinisten dute eta euren ikastetxea “erreferente bat izan da eta horretan jarraitu nahi dugu, bizirik” diotenez.

1979. urtean mistoak bihurtu ziren neska eta mutilen bi ikastetxeak eta 1996-97 ikasturtean Ongarai izena hartuta, bat egin zuten, eraikin bakarrean kokatuz. Milaka ikasle izan ditu ikastetxeak eta

50 urteurrenak izandako komunitatea loratzen du, leku horrekin lotuta baina ahaztuta egon diren gogorapen eta bizi-penak berpiztuz.

Agian nostalgiarako, baina batez ere ospakizunetarako bi egun izango dituzte, urriaren 21a eta 22a: ekitaldi ludikoak, diaporama, bazkari herrikoia, erromeria... Gonbitea ikasle, guraso, irakasle zein langile izandako orori luzatzen diete. Informazio gehiago nahi izanez gero eskolako webgunean eta Facebooken eskuratu daiteke.

Estibalitz González



Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com




**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

KRABI
Ilepaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduek: 688 85 18 95

Eskuz egindako
terapietan adituak



ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

HARATEGIA - URDAITEGIA

MIGUEL

BERTAKO
OKELAK

ETXEAN EGINDAKO
TXORIZO
TXISTORRA
ODOLOSTE
ETA
KROKETAK

PROBALEKU 3 - 943 170563
ERMUA